# jokulariak114

**EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA**
**BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS**
udaberria 2019 primavera

# ANARTZ ZUAZUA

## IDAZKARI NAGUSI BERRIA





aisge
www.aisge.es
AISGE
es lo tuyo
Si eres actor o actriz audiovisual,
¡HAZTE SOCIO!
No te costará nada,
Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa
Y recibirás los derechos que te corresponden




114

udaberria
primavera
2019
**Azala** Argazkia
Eneko Olasagasti









08

10

16

# SUMARIO


04 **EDITORIALA**
**Batzar Nagusiaren ondoren**

07 **IKASTAROAK**

08 **EKINTZA SINDIKALA**
**Abenduak 2018ko premiazko neurriak**
Gurutze Baztarrika

10 **Anartz Zuazua EAB-ko Idazkari Nagusi berria**
Eneko Olasagasti

16 **DONOSTIA SARIAZ**
Ainara Ortega, Iraia Elias, Xabi SanSebastian, Miren Tirapu, Ana Pimenta

20 **EGINDAKO IKASTAROAK**
Josune Velez de Mendizabal, Eriz Alberdi

22 **OHARRAK**



# jokulariak

EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA



DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
eabbilbao@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com



**Koordinazioa, edizioa**
Eneko Olasagasti
**Maketazioa, diseinua**
I. Z.
**Inprimategia**
Antza
LG/DLSS168/2000


Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikuluak.
**Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.**

Editoriala

# BATZAR NAGUSIAREN ONDOREN

Azken hiruhilekoan izan dugun ekimen Nagusia, dudarik gabe, urteroko Ohiko Batzar Nagusia izan da eta bertan hartutako erabakien artean, besteak beste, Zuzendaritza Batzordearen berritzea izan da. Batzordea utzi dutenen artean Idazkari Nagusia dago, Esther Uria, eta Miriam Martin, Javier Liñera, Vidal Erdozain eta Ana Perez. Haien tokia hartzeko bost afiliatu sartu berri dira: Bego Guerrero, Ana Furones, Imanol Espinazo, Iñigo Aranburu eta Judit Lorenzo. Idazkari nagusi berria Anartz Zuazua da. Hartutako beste erabaki garrantzitsuen artean Euskal Aktoreen Sariak berreskuratzea dago eta dagoeneko martxan gaude.
Jakingo duzuenez azken hilabetetan bizkoizketan lan gatazka eman da eta Bizkoizleen zati batek greba egin du beste batzuk lanean ziharduten bitartean. EAB greba egiten ari direnen alde azaldu da, haien eskaera legezkoena iruditu baitzaigu. Hain zuzen ere haien errebindikazioa 2004ko ordainsaria berrezartzea izan baita, urte guzti hauetan eman den beherakadari aurre egiteko asmoz. Hurrengo astetan konbenioa negoziatuko duen mahai sektoriala deituta dago eta alde guztiak daude mahai horretan parte hartzera gonbidatuta. Ea behingoz lan arlo hau duintasunez garatzea dagoen.
*Sormenaren parte izan* egitasmoa Gipuzkoan hirugarren urtez egingo da eta Bizkaian lehenengo aldiz. Ez dakigu zergatik baina azken honetarako jende gutxik eman duzue izena. Pena bat litzateke hurrengo edizioetan berdin ibiltzea BFA-ren laguntza lortuta zegoelako eta ekimen honek Bizkaiko Aldundiarekin aspalditik bilatutako harremanaren hasiera suposatzen duelako.
Azken bi hilabetetan ere Eusko Jaurlaritzatik proposatutako *Kultura Auzolanean* jardunaldietan partaide izan gara arloko beste elkarteekin batera (ATAE, Eskena…). Mahai lana egin ondoren aurrera begirako xedeak finkatu dira. EAB-k formakuntza eta hezkuntzako arloaren lidergoa hartu du. Espero dugu honek, nahiko geldituta zegoen, Hezkuntza arloan egiten ari ginen lanerako susperraldia suposatzea.
Azkenik, nabarmentzekoen artean, Antzerki Konbenioarena dago. Eskenatik jaso duzu deia beronen negoziaketari berriro heltzeko. Azken proposamena EAB-k 2017ko urtarrilean egin zuen. Egun proposamen berdina berbidali zaio Eskenari, beraz haie dagokie orain proposamena aztertu eta erantzutea. Hori gertatzerakoan Antzerki Konbenioaren batzordea martxan jarriko dugu berriro.

En la última Asamblea General se han renovado cargos. A continuación podéis ver a los componentes de la nueva Junta Directiva. El nuevo secretario General es Anartz Zuazua. En la misma también se decidió retomar los premios de interpretación de EAB. Respecto a la huelga de los dobladores en euskera, EAB se ha posicionado con la parte de ellos que reclama las tarifas de 2004. Los sueldos desde entonces no habían hecho sino bajar. *Sormenaren parte izan*, nuestro proyecto en educación, se ha hecho por primera vez en Bizkaia. Estamos participando activamente en la iniciativa del Gobierno Vasco *Kultura auzolanean*, en el sector de las artes escénicas, en la cual lideramos el apartado de formación. Por último, señalar que Eskena se ha puesto en contacto con nosotros para reactivar el proceso de negociación del Convenio Autonómico de Teatro. Según avance reuniremos la comisión que se encargará de ello.

**Anartz Zuazua** Zuzendaria



Antzertin, Madrilgo W.Layton antzerki laborategian eta Pariseko J. Lecoq antzerki eskolan burutu zituen ikasketak. Zine eta bideo ikasketak Andoaingo zine eskolan burutu zituen. Ordutik zuzendari eta aktore bezala lan egin du. Antzerkian Orain, Arteszena, Real Teatro de la Zarzuela, Ados, Txalo, Vaiven, Gorringo antzerki taldeentzat lan egin du, besteak beste. Zineman ere esperientzia handia du; Gonzalo Suarez, Elena Taberna, Daniel Monzón, Miguel Bardem edo Emilio Martinez Lázaro bezalako zuzendariekin lan egin du. Borobil Teatroa sortu zuen eta dagoeneko bost antzezlan ekoiztu ditu: Borobil Teatroaren zuzendaritzaz gain, antzerki irakaslea ere bada. 1999.urtean Zurriola antzerki eskola martxan jarri zuen Joxerra Fatxadorekin batera. 7 urtetan bertan antzerki irakasle bezala aritu zen eta 270 ikaslek antzerkia ikastea lortu zuten. Gaur egun Jakintza Ikastolan, Luberrin ikastetxean eta Villabonan dabil antzerkia irakasten.



**Ana Furones**

Bilbao, 1981. Comienza su formación teatral en 1995 en el Aula de Dramatización Antzerki. En 2001 confunda la compañía Nexoteatro En 2013 finaliza la formación de Arte Dramático en Ánima Eskola en Bilbao. Posteriormente se une a Txaika Teatro con la que realiza el montaje *Delirio para Dos* entre otros.

En 2013 se pone a las órdenes de Andrés Lima en el Workinprogress *La Cocina*. Participa en festivales nacionales e internacionales: Jornadas de Teatro de Eibar, Romateatrofestival, Mostra de Teatre de Barcelona, Indifest, BAD… Recibe premio a mejor interpretación en el Festival de teatro universitario de Bilbao en 2013. Participa en diversos cortometrajes (*Palabras*, *Dame 1 minuto de refugio*, *Ventanas*, *Siyusún*…) En 2014 funda junto a Judit Lorenzo Dame Veneno Teatro. Sirve a EAB como jurado en Zinegoak y Fant 2018. Sus últimos trabajos son la webserie *Otsoen Lurraldean* en 2018, y la serie *Acosados* como actriz principal de un capítulo de la productora Vervemedia para Cuatro, pendiente de estreno.

**Judit Lorenzo**



Gernika, 1985. Aún sin acabar los estudios de Arte dramático, en 2012 se forma la compañía de teatro de la escuela llamada Txaika Teatro. Después forma parte de la compañía de la sala hACERIA en la que trabaja durante un año. Actualmente tiene su propia compañía junto a Ana Furones llamada Dame Veneno Teatro. Con su microteatro *Delirios de Grandeza*, colabora en el día mundial del teatro junto con el Ayuntamiento de Bilbao y dentro del BLV-ART; y con *¡Qué desfachatez!* en las Jornadas de Teatro Breve de Getxo. También han trabajado para microteatro por dinero en Bilbao.

Alterna sus trabajos en el teatro con diversos cortometrajes (Iker Arce), largometrajes (Francisco Avizanda), videoclips (*Gerente*) y trabajos en publicidad (Mapfre).

Recientemente ha participado como jurado en Zinegoak 2018 y Fant 2018.

**Imanol Espinazo**
Bilbao, 1979. Estudia en la Escuela Navarra de Teatro, en la Real Escuela Superior de Arte Dramático (RESAD) y se diploma en la Escuela de María del Mar Navarro y Andrés Hernández.
En 2001 se inicia como profesional con la compañía La Nave. Desde entonces trabaja ininterrumpidamente como actor profesional. En 2013 funda Compagnie des Vents et Marées, realizando los siguientes espectáculos de creación propia *Elle*, *Au bout de la playa* y *Origines*.





**Iñigo Aranburu**
Actor donostiarra formado en Barcelona. En cine cabe destacar su participación en *Handía*. Además ha trabajado en largometrajes como *Diecisiete*, *Los Europeos*, *Ventajas de viajar en tren*, *Ola de crímenes*, *Morir*, y *El guardian invisible*.
Entre sus último trabajos en televisión destaca la serie *Presunto culpable*. Asimismo ha participado en series como *Allí abajo*, *Cuéntame cómo pasó*, *Homicidios* y *Aguila Roja* entre otras. En ETB ha participado en infinidad de ficciones como *Aitaren etxea*, *Irrikitown*, *3Txulo*, *Nekane Amaya*, *Goenkale*… También ha trabajado en catalán para TV3 en las series *El Cor de la Ciutat* y *Jet Lag*.
Miembro fundador de la compañía La Guapa Teatre (Barcelona).

**Bego Guerrero**
De Bilbao, realizó estudios de Arte Dramático en la escuela de Artes escénicas Artebi e interpretación ante la cámara en la escuela de cine Kinema de Bilbao.
Alumna de Bajo Ulloa motivo que le llevó a su primer cortometraje con el cual recibió el premio honorífico de cine Euskal Bobinak.
Ha participado en varias obras y monólogos teatrales y en diversos proyectos audiovisuales y cortometrajes de producción propia.





**Aitor Pérez Collado**
Dedicado al teatro desde el año 1995, lo hace de manera profesional desde el año 2000, tras formarse en la Escuela de Teatro de Getxo. En el año 2005 crea su propia compañía, Ékoma teatro, con la que realiza diferentes espectáculos, pero también ha trabajado con otras compañías como Pez Limbo, Simulacro Teatro, Teatro Paraíso, El Mono Habitado… Combina su trabajo de actor con la dirección de varios grupos de Teatro Amateur e imparte clases de interpretación en diferentes escuelas del País Vasco.



## CURSO DE TÉCNICA VOCAL

- Loyola Garmendia
- Junio 1, 2, 8 y 9
- Donostia, Callejón de San Bartolomé
- 9:30-14:30 h.
- Castellano
- Precio 100€ (70€ socios de AISGE)
- eabdonostia@euskalaktoreak.eus
- 688619788

**Loyola Garmendia**
Curso de técnica vocal por Loyola Garmendia, cantante profesional con más de 35 años de experiencia, la mayoría de ellos con los Golden Aplle Quartet. Ha cantado en películas como *Toy Story* o *La mansión encantada de Walt Disney* entre otras.
Cursos:
-Anatomía y fisiología del instrumento de la voz
- Respiración diafragmática
- Respiración laringea
- Proyección de la voz
- Sonoridad vocal
- Canción personalizada



## ENTRENAMIENTO DE CÁMARA

- Norma Vila
- Mayo 9, 16, 23 y 30 (jueves)
- Bilbao Eszena
- 9:30-14:30 h.
- Castellano
- Precio 100€ (70€ socios de AISGE)
- eabdonostia@euskalaktoreak.eus
- 688619788
- Fecha límite: 30 de abril

**Norma Vila**, Bilbao 1983
Comienza su carrera cinematográfica como directora de fotografía, trabajando en numerosos documentales y cortometrajes. En 2015 funda su productora independiente Demeter Films, con la intención de producir sus propios proyectos y los de su socio, el también director Haritz Zubillaga.
En 2016 dirige su opera prima, el cortometraje de género fantástico *Jules D.*, sumando más de 80 selecciones internacionales y más de 20 premios y reconocimientos en festivales como FilmQuest y Women in Horror en USA, Zinebi en España o Genre Celebration en China.
Su segundo cortometraje, el thriller psicológico *El Fin de Todas las Cosas*, ha sido estrenado en el Festival de Málaga 2019.

Ekintza sindikala



Ilustrazioa Rami Niemi

# ABENDUAK 2018KO **PREMIAZKO NEURRIAK**

2018.urteko abenduak 28an jakinarazi zen Errege Dekretuak, sorkuntza artistiko eta zinematografiari dakokion presazko neurriak onartu zituenak, hain zuzen ere bere bigarren tituloan artisten lanik gabeko aldietarako kotizazioari buruzko neurriak ezagutzera ematen ditu:

Norma honek aktoreei aukera ematen die lanik gabeko aldi horietan Gizarte Segurantzako errejimen orokor barnean egoteko.

Barruan egoteko, Gizarte Segurantzako diruzantzan eskaera egin behar da, urte bakoitzaren hasieran, Urtarrilak 1etik 15era (2019. urtean, nobedadeagatik nonbait, epe hau luzatu egin da martxoaren 31raino).

Eskaera hau egiteko honako baldintzak eman behar dira:

- Ikuskizun publikoetan artista izatea lan harreman bereziarekin eta tekniko eta laguntzaile pertsonala ere.
- 2018.urtean artista taldeko Gizarte Segurantzako errejimenean gutxienez 20 egun altan egona baieztatzea.
- Lan egun horietan irabazitako soldatak Lanbidearteko Gutxieneko Soldata hirukoiztua, hileko kontaketan, gainditzea.
- Ezingo dira sartu plan honetan, sartzeko momentuan edozein Gizarte Segurantzako errejimenean altan dauden langileak.

Langilea da, behin sartuaz gero, lanik gabeko aldietan kuotak hilero sartzeko arduraduna. Bi hilabete jarraian ordaindu gabe, Gizarte Segurantzako Diruzaintzatik baja emango zaio.

Ze kuota ordaindu behar da? Une horretan 7garren kotizazio taldearentzat indarrean dagoen gutxieneko oinarriaren %11,50. Aurten 1.050 euroren %11,50 izango litzateke, 120´75€.

Honen ondorioz, babes eragina amatasun, aitatasun, ezgaitasun iraunkorra, heriotza eta erretiroagan izango du.

Babesa emango zaio haurdun egoteagatik aktore lanetan zebilen emakume langileari, lan hori uztea behartuta geratzen denean edota amagandiko edoskitzean haurrak 9 hilabete bete arte.

Egoera hau Gizarte Segurantzako ikuskaritzan egiaztatu eta gero emakume langileak lehen esandako kotizazio oinarriaren (1.050€) %100 jaso al izango du.

**Gurutze Baztarrika**

# MEDIDAS URGENTES DICIEMBRE 2018

El 28 de diciembre del 2018 se promulgó el R.D.26/2018 por el que se aprueban medidas de urgencia sobre la creación artística y la cinematografía, que regula la posibilidad de que los actores y actrices en período de inactividad puedan continuar incluidos/as en el Régimen General de la Seguridad Social.

Lo que ha de hacer quien quiera incluirse voluntariamente, es solicitarlo ante la Tesorería General de la Seguridad Social y siempre que se den los siguientes requisitos:

- Ser artista en espectáculos públicos, con relación laboral especial, así como los técnicos y auxiliares.
- Acreditar al menos 20 días de alta en el Régimen General de artistas durante el año anterior.
- Que las retribuciones percibidas durante esos días de actividad deben superar el triple del Salario Mínimo Interprofesional, en cómputo mensual, en el 2018, 2.700,00€.
- Y no pueden acogerse a este sistema quienes en el momento o en el plazo de la solicitud estuvieran trabajando en cualquiera de los Regímenes de la Seguridad Social.

El plazo para hacer la solicitud es del 1 al 15 de enero de cada año, a excepción de este año 2019, en que el plazo se prolonga hasta el 31 de marzo.

Es la/el trabajador/a la/el responsable de ingresar las cuotas todos los meses, de manera que si deja de hacerlo durante dos meses seguidos, la Tesorería General de la Seguridad Social le dará de baja.

¿Qué cuota hay que abonar mensualmente? El 11,50% de la Base mínima vigente en cada momento para el grupo de cotización nº 7. Este año 2019 sería el 11,50% de 1.050€, es decir, 120,75€ al mes.

El hacer todo esto deja cubiertas la maternidad, paternidad, incapacidad permanente, muerte y jubilación.

También cubre a las trabajadoras en activo como artistas y que como consecuencia del embarazo tengan que dejar de trabajar, así como la lactancia natural hasta que el bebé tengan 9 meses de edad. Percibirán el 100% de la base mínima, antes indicada, sobre la que se paga mensualmente (1.050€ al mes este año 2019). **G. B.**



# ANARTZ ZUAZUA

## EAB-KO IDAZKARI NAGUSI BERRIA AKTORE SOILA BAINO GEHIAGO

Testua eta argazkiak **Eneko Olasagasti**

Aktoreak izateaz gain gaur egungo aktore asko zuzendariak, dramaturgoak, ekoizleak eta beste dira. Hori da Euskal Aktoreen Batasuneko Idazkari Nagusiaren profila ere. Beste gauza askoren artean Borobil konpainia sortu zuen eta makina bat lan ekoitzi ditu. Gure lanbidearen gaineko hainbat gauzetaz duen iritzia jakiteko asmoz berarekin solastu gara.

**Gaur egungo aktoreen profila anitza da. Ez zarete aktoreak soilik. Zureak horrekin bat egiten du, ez?**
Nik uste EAB barruan, ez dakit zenbat garen 400 bat edo… Nik uste lan eza honek, murriztapen honek eramaten gaituela horretara, zerbait sortzera lana izateko. Horrek eramaten zaitu autonomo izatera edo SL bat sortzera.

**Horrek esan nahi zu egoera "normalizatu" batean ez zenuela ekoiztuko?**
Nik aktore bezala lan egingo banu seguruenik ez nuke beharrik izango. Ez dakit… Nik betidanik zuzendari izan nuen. Beti pentsatu izan dut aktore arima duen zuzendaria naizela. Erosoago nago zuzentzen aktuatzen baino. Baina ni aktuatzen hasi nintzen profesio honetan.

Ez dakit aktore bezala lana izan banu zer gertatuko zen. Gauzak bestela izan izan balira ez dakit…

**Kontua da orain bazarela.**
Hori da. Ni tesitura horretan egon nintzen. Edo hasten nintzen zerbait egiten edo lanbide hau utzi beharko nuen

**Oso argi eduki zenuen beti aktorea izan nahi zenuela?**
Nik, haurra nintzela, oso garbi neukan oso gustokoa nuela antzerki mundua. Nire irakasle izan zirenak esaten dute 4. Mailan oso garbi neukala, antzerkia egin nahi nuela. Ze modutan, ez dakit. Garai hartan ikastolak ez zeukan antzerkia gaur egun eskola batzuk daukaten bezala. 3. BUP bukatu eta gero Imagen y sonido ikasteko aukera izan nuen. Eta hor bigarren kurtsoa egiten ari nintzela Errenteriako Niessen-en, Ur taldeak zeukan eskolan, audizioak egin zituzten. Hori Antzertiko lehenengo zikloa zen. Hor audizioak egin nituen eta sartu nintzen. Hor niretzat ortzia irekitzea bezala izan zen. Orain taldeak deitu zidan haurrentzako obra bat egiteko, Kike Diaz de Radak zuzendua. Horrek konfiandatza eman zidan. Ni infernutik netorren. Ikastola garaia infernu bat izan zen eta, klaro, derrepente jende helduarekin negoen, antzerkia egiten, bidaiatzen, oso interesgarria izan zen. Eta gero Madrilera joan nintzen ikastera…

**Ze formakuntza mota daukazu?**
Willian Layton-en laborategira joan nintzen, eta hor nengoela Arteszena sortu zen hemen. Audizioak egin nituen baina ez nintzen sartu. Baina ikasturte erdian, bapatean, ordezkapen bat egiteko hartu ninduten *Mephiston*. Hor, Carlos Zabala protagonista zen eta *Jaun ta Jabe*-rako nire adineko aktore bat bilatzen ari ziren. Eta ni aukeratu ninduten. Derrepente dena oso erraza izan zen, dena oso azkar joan zen. Nahi gabe sartuta nengoen. Ez zidan denborarik eman ez ta pentsatzeko benetan zer egin nahi nuen. Eta



famatua nintzen nik bilatu gabe. Baina ez zitzaidan gustatzen famatu izatea eta erabaki nuen Parisera joatea. Ikasketak jarraitu nahi nituen. Lecoq eskolara joan nintzen. Eta hori nolabaiteko mozketa bat izan zen. Parisetik bueltatu nintzenean trenak pasaten jarraitzen zuten baina jada ez zegoen niretzako tokirik, Eta orduan hasi nitzen klaseak ematen. Eta klaseak emanez praktikan jarri nuen Parisen ikasitakoa. Eta hori izan zen nire zuzendaritza eskola. Horrela laupabost urte pasa ziren Gorringo taldearen eskeintza iritsi zitzaidan arte *Kutsidazu bidea, Ixabel* zuzentzeko. Eta kriston arrakasta izan zuen. Horrek telebistan saio bat egiteko bidea zabaldu zuen eta… Berriro trenak pasatzen hasi ziren. Eta hor konszienteki trenak hartzen hasi nintzen eta derrepente zuzendari bihurtu nintzen.

**Eta nola bukatu duzu EAB-ko Idazkari Nagusi gisa?**
Nik uste aktibista naizela berez. Betidanik. Ikasten ari nintzela beti nengoen besteen kontra. Baina ez kontra egiteagatik, nire ideologia horrelakoa zelako eta besteenen kontra egiten zuelako. Eta… nik uste, oso konsekuentea naizela edo behintzat izaten saiatzen naizela. Orduan… nolabait… baloreetan hezitutakoa naiz. Zerbaitetan parte hartzen dudanean injustiziak ezin ditut alde batera utzi. Kontra egin behar dut. Eta sartu nintzenean lanbide honetan, bada, berdin. Eta horrek ez dit mesede handirik ekarri. Eta orain Idazkari Nagusia izanik nik ikusten dut profesio honetan oraindik gauza asko egin daitezkela, eta hobetu behar direla. Eta horretan gaude.

**Zer gustatuko litzaizuke lortu izana zure oraingo ardura hau bukatzean?**
Bada, adibidez, soldata duin batzuk izatea. Konbenioa minimoena da eta badakit talde batzuk minimo horietara mugatzen direla. Eta programatzailak ardura handia daukate. Adibidez, ez lukete antzerki amateurra ordaintzen programatu behar. Gastu minimoak eta hori bai, noski. Baina, nik uste, hori baino gehiago ordaintzen dela. Eta baditut adibideak. Aldatu beharko litzateke programatzeko modua. Azkenean hitzartutako zirkuitoan sartzen ez denak ez dauka lekurik. Zergatik Euskadiko programatzaileak programatu behar dituzte proiektuak eta ez gauzatuta daudenak?

**Bueno, hori konpainien aspaldiko errebindikazioa da, ez? Programatzaileak ekoizpenaren prozesuan sartzea. Ekoizpen batzuk behintzat bermatze aldera.**
Baina ez da egia, zeren azkenean programazioa kopatu egiten da horiekin.

**Horrek gure lanbidearekin lotura dauka. Azken batean ekoizpen bat antolatzerakoan aktoreekin lotu dezakezun konpromisoarekin lotura zuzena dauka. Aktore bat urte t´erdi daukazu kontratatuta 30 bolo egiteko, ez?**
Hori da. Beste bat. Produktora bat aktoreen errepresentantea izatea. Hori ezin da horrela izan. Eta programatzaileekin berdin. Programatzaile batek ezingo luke horietako ekoizpenik kontratatu ahal izan. Hori ilegala.

**Ez dakit ilegala den, Gurutzerekin kontsultatu beharko genuke…**
Uste dut hori gertatu zela eta EAB-k esku hartu zuen… Eta bai… Ez da lehenengo aldia. Gustauko litzaidake, baita ere, EAB-ko sariak berriro martxan jartzea. Badakit, gainera, ahalegina egingo dela.

**Arloz arlo joanda… Telebista. Orain ETB guztion, gizartearen, ikusmiran dago. Zeintzuk diren bere betebeharrak eta… Horrek gure arloarekiko garai batean eduki zuen konpromezua, edo ez dakit nola deitu, gogorarazten du. Gaur egun nolakoa beharko lukela uste duzu?**
Niretzat ETB Euskal kulturaren lehioa da. Eta orduan aldatu beharko lukete haien pentsamoldea. Ez




da bakarrik entretenimendu industria bat, hau da, ezagutza emateko baliabidea ere bada. Orduan argi dago, adibidez antzerkian, telebistan agertzen ez den aktore batek, gero, ez dauka telebistan agertzen den aktoren baten oihartzuna. Horrek ze ondorio dauka? Adibidez, telebistan agertzen den aktore bat baldin badaukazu zure produkzioan… Hori bakarrik kontratazioirako giltza handi bat da. Zergatik? Aktore horrek antzokia bete edo ia beteko du. Orduan programatzaileak bi aukeren artean ezaguna den aktorea duen produkzioaren alde egiten du. Madrileko programazioari begiratuta, musikalak kenduta, eskeintza gehienetan aktore ezagunak daude.

**Garai batean kontrakoa errebindikatzen zen. Zergatik ezin da egin antzerkia telebistako aktorerik gabe?**

Nik ez dut esaten telebistako aktorerekin bakarrik egin behar denik. Igual egin beharko litzatekena da telebistan gauza gehiago, aktore gehiagok telebistan parte hartzeko. Euskal Herrian badago star sistemaren kontrako nolabaiteko tirria bat. Badirudi hemen ezin dugula star sistemarik sortu. Eta zinean adibidez, pelikuletan, beti jende berdina agertzearekin ez dagoena gustora. Star sistema sortzen bada oihartzuna lortzen da eta orduan… ze pasatzen da futbolean? Imajinatu errealak denboraldiaren erdian jokalari guztiak aldatuko balitu. Ez lituzke inork ezagutuko, fideltasuna galduko litzateke, ez litzateke inor zelaira joango. Orduan… nire ustez beharrezkoa. Jendeak ezagutu egin behar ditu aktoreak.

**Horrek bi alde dauzka. Ona, zu esaten ari zarena, ikusgarritasunarena. Eta bestea, lanbidearen komerzializazioa. Zenbat jende sartuko litzateke star sistema horretan?**

Hain gutxi egiten da azkenean hiruk hartzen dutela puska. Begira diezaiegun telebista kate edo zinema estatalari? Beti ikusten dituzu berdinak: Antonio de la Torre, Tosar… baina sekundarioen arloan abanikoa asko zabaltzen da.

**Ereduak alderatuta, gurea txikiagoa izanda, Espaniakoak maila desberdinetako aukerak eskaintzen ditu. Egon badagoela telebistako aktoreekin lan egiten ez duen arlo bat, eta badaudela bestelako**

**zirkuito ez komertzialak, superbizitzitzeko aukera ematen dizkienak, zirkuito komertzial horietatik kanpo. Eta Euskal Herrian, berriz, denak nahastuta daude, zaku berdinean sartzen da dena?**
Bai, ados nago. Eta zer egiten duzu horrekin? Eta amateurrak ere tartean sartzen dira. Herri batek programatu dezake talde amateur bat eta horrekin bere kupoa bete.

**Badakizu bikoizketaren inguruan eman dela gatazka bat, ez? Baduzu iritzirik horren gainean?**
Hor kontraesanean sartzen naiz. Alde batetik nire ikuspuntu pertsonala dago eta bestetik sindikalista bezala daukadana. Beti pentsatu izan dut askoz interesgarriago dela jatorrizko bertsioan gauzak ikustea. Baina, bestalde, egia da hain gutxi ekoizten dela euskaraz ez badiozu bikoizketaren irtenbidea ematen euskarak apenas duela esparrurik. Gaur egun esango nizuke, eta gainera seme-alabak izanda eta horiek euskaraz hezitzen ari garela, bai botatzen dut faltan itzulpen gehiago. Pila bat harritzen nau pelikula ikustera joaterakoan katalanez ikusteko aukera izatea eta ez euskaraz. Badira ekonomikoki onak diren inbertsioak baina badira diruarekin bakarrik neurtu ezin daitezken beste inbertsio batzuk. Beste kontu bat da gainera orain dela 15 urteko tarifekin ibiltzea. Hori lotsagarria da. Eta antzerkiari begiratuta, 180 euroko gutxinekoekin gabiltza. Kopurua berez ondo dago baina zenbat emanaldi egiten dituzu hilean? Lau? Eta hori ondo joanda. Horrekin ezin da duintasunez bizi.

**Honek beste gai batera garamatza. Ikusiz lan egiteko zein aukera gutxi dagoen… Transizio profesionalaren gaira. Eta Hezkuntza.**
Hori da daukagun erronka, esparru berriak arakatzearena. Erakundeak inplikatu behar ditugu horretan. Betidanik pentsatu izan dut gure lanbide hau eta hezkuntza eskutik helduta doazela edo, hobeto esanda, joan behar direla. Eta musika eta dantza ere bai. Badaude egistamoak horren inguruan. Gu geuk, EAB-k, *Sormenaren parte izan* adibidez. Antzerkia kirolak eskoletan duen garrantziaren parera eraman beharko litzateke.

**Zenbat denbora ematen diozu horrelako prozesu bat gauzatzeari, gizarteak kultura behar bat bezala sentitzeari?**
Belaunaldi asko galdu ditugu eta horrela jarraituz gero ez dakit inoiz lortuko dugun. Benetako interes politiko bat balego bi urtetan posible litzateke. Baina ez dut ikusten borondaterik.

**Pragmatikoak ipiniz, zer eskatuko zenioke Lehendakariari edo Espainiako Presidenteari, eskumenak eskumen?**
Lehenengoa antzerkia ordu kurrikularretan sartzea, bai ala bai. Bigarrena, BEZ-a jaistea. Eta hirugarrena, komunikabideak behartu kirolari eskeintzen dioten tartea kulturari eskeintzea ere. Eta LHtik aurrera hilabetero antzerki bat ikustera joatea. Ni guraso bezala ez banaiz kulturan hezi ez dakit kulturan hezitzen. Orduan, erakundeek ezin dute ardura hori gurasoen bizkar utzi. Haiek eman behar diete umeei kultura deskubritzeko aukera, musika, antzerkia… Kirola deskubritzeko ematen den aukera berdina alegia. Ez dago besterik.

**Besterik?**
Erakundeek ez badute bere gain kulturan hezitzearen ardura hartzen gu, EAB, ardura hori hartzen ari gara “Sormenaren parte izan” bezalako egitasmoekin, ikasleei lehen aldiz mundu hori deskubritzeko aukera emanez. Normaltasunera iritsiko gara Zurutuzak ligamentoa hautsi izana Aitziber Garmendia ahotsik gabe gelditu izana bezain inportantea bihurtzean. **E. O.**



# **EAB**-REN OHARRA

Gai hau azken Zuzendaritza Batzordean eztabaidatu zen ondorengoa erabakiz. Lan gaztaka egon izan bada bere garaian aztertu beharko zen eta Antzerki akordioan arautzen diren baldintzak bete izan ez balira salaketa jarri. Hala izan ez zenez orain ez da egokia ikusten. Euskarazko bertsioen lanketaz, aktoreek salatzen zuten beste kontu bat, gogoeta egin beharra ikusi da eta behar izanez gero laster enpresekin bernegoziatuko den, oraingoan bai, Antzerki Konbenioan gutxieneko baldintzak zeintzuk izan beharko lirateken idatzita utzi. Arrazoiak arrazoi orain bi urteko EAB-ren azken proposamenari Eskenak ez zion erantzun. Gaur da haien deia, Konbenioaren negoziaketari berrekiteko, jaso dugun eguna.

Gai guztion atzean EAB-k uste du sakonean dagoen arazoa arloak eta arlokideak bizi duten prekarietate egoera dagoela eta hori konpontzen ez den bitartean egoerak ezin duela hobera egin. Eta hor ardurak guztionak dira, Konpaniak, Eskenakoak eta besteak, langileen elkarteak eta Erakundeak.

**EAB**








# GURE LANBIDEAREN **AZALAK**

Duela urte pare bat, emakume bati senarrak masailekoa emandakoan “zer ez ote zion esan” entzundakoa naiz ni nire herrian. Gauzak aldatzen ari omen dira. Dagoeneko ez dira halakoak hain maiz entzuten baina askok pentsatzen ez duenik ez du esan nahi ordea. Susmagarriak plazara, sorginak sutara eta gure konpainiak inputatuen aulkira; horrelaxe bizitu ditut nik *Sherezade eta tipularen azalak* ikuskizunaren inguruan gertatutakoak. Konpainia guztiak esaten dudanean, guztiak esan nahi dut, salbuespenik gabe, izan ere, ez dakit jabetzen garen gizartearen aurrean prentsa bidez geure gatazkak jaurtitzerakoan eragin nahi izan den asaldurak, hurrengoetarako ere zirrikituaren bidea zabaldu duela gizarteak iritzi arina eman dezan, besteak beste. Arrakala arriskutsua ireki da zoritxarrez eta gutariko askoren sentiberatasuna harramazkatu ere bai, nola ez. Zapi zikinak garbitu eta aireratzeko -izan bai baitira, ez dut halakorik ukatuko- geure plataforma eta eszenatokirik baliagarriena dugu EAB esaterako eta bertan egiten diren bilera jendetsuak urte osoan zehar (ironiaz irakurri), baita beste foro batzuek ere. Nik ere datuak bezainbat ditut susmoak kasuaren inguruan baina ez naiz ni ere ehizean hemen hasiko. Konpainia guztietara itzuliko naiz une batez, izan ere harriduraz jaso nuen “kontsakratuak” etiketa hura aktoreen idatzian. Zuek eta besteak esan nahi ote zuten? Ni eta zuek? Edo gu eta haiek? Zein dira haiek? Konpainia duten aktoreak dira? Aktore lana egiten ez duten enpresak? Nork nori eta zer dela eta jarri dio etiketa? Jaungoikoak edo erakundeek sagaratu dituzte? Zein egunetan ospatu zen hori? Ziur nago zeinek eskatu eta defendatzen dituzten epaimahaien aurrean dirulaguntzak? Kontsakratu batean lan egiteko deitzen banaute nola jakin dezaket halakoetakoa dela? Kutsagarria da? Zer da? Edozein konpainia edo lan-talde ttikiagotatik deitzen badidate galdetu egingo dut, akaso ezaugarri fisiko batzuek dira eta nik ez nekien. Lankideok, orain galde diezaiogun zintzotasunez geure buruari zenbat kontu-xahar eta gatazka izaten diren geure lanbidean. Makina bat, bai. Horren jatorri eta ondorioa dira, esaterako, geure malgutasun ekonomikoa zein pertsonala espazio profesional batzuetan, geure exijentzia beste batzuetan, geure inertzia autoesplotatzaileak, geure oportunismoa, geure prekarietatea,… Geure borrokak eta aldarrikapenak, niretzako denak zilegi, denak eztabaidagarriak eta aldagarriak, saiatu ez garenik ez dezatela esan hurrengoek. Eta galde diezaiogun ia zenbat bider egiten dugun benetako borroka horiek aldatzen eta hobetzen saiatzeko, egunerokoetatik orokorrenetara, lorpenak egiteko, horietaz ikasteko.

Beti mirestu izan zaituztet euskal aktore guztiak, baita kontsakratuak ez zaretenak ere, (ironiaz) zuen pasio, adore eta bokazio aldaezinagatik, zuen irmotasun erosezinagatik eta geure lankideei duela urte pare bat egindako salaketa eta boikot beldurgarrien aurrean batu zineten/ginen moduagatik, besteak beste. “Sherezaderen” kasuan etsaia kanpotik etorri ez delako barruan ikusi badugu, alegia, geure konpainietan guztietan (lekuko deigarria izan da denon ixiltasuna), bi ondorio posible aterako nituzke: edo konpainiekin lan egin beharrean konpainia guztien kontra egiten dugu edo integritate osoa falta zaigu gure lanbidean gertatzen diren boikot publikoak eta pertsonalizatuak salatzeko.

Konpainia asko eta askotako zuzendari, idazkari, teknikari eta langileak ere aktoreak direla, zirela edo nahi luketela ahazten zaigun unean zilborkerian eta oportunismoaren zakuan jausiko gara, itxukeriak edo ezjakintasunak bultzata. Askotan eta hainbat konpainia eta lan-espaziotan egin diet/diegu gogor baldintza zein egoerei, buruz- burukoan zein EABk gogotik lagunduta, nire eta geure eskubideen urraketei –denonak sentitzen baititut- eta halaxe egingo nuke berriz ere baina argi daukadana da jaten ematen didan eskuari kosk egiteko ez nagoela ni. (Gure edadekoek dioten bezala: “nik hola pentsatzet biñepiñ”)

Besarkada bana guztiei: aktore kontsakratu, prosaiko, profano, ekumeniko zein anbrosianoei, ados ez zaudetenei ere bai. Baita itsusiei ere.

**Ainara Ortega Barrenetxea**

# **DONOSTIA SARIAREN** INGURUAN

***Sherezade eta tipularen azalak* antzezlaneko aktoreak Vaivenen oharrari erantzunez:**
Vaivenen gutunari erantzun eta kontu guzti hau ixteko beharraz idazten dugu gure azken ohar hau. Espero dugu bertan argituko direla zalantzan egon daitezkeen zenbait kontu.
Lehenik eta behin, esan esperogarria zela Vaivenen erantzuna, eta are sare sozialetako zaratatxoa. Auzi larri bat ekarri dugu argira, eta guztiz ulergarria da beste aldeak bere burua defendatu nahi izatea.
Gu hiruontzat oso pausu zaila izan da gatazka hau publiko egitea. Vaiven bere ibilbide oparoa ari zaigu nabarmentzen behin eta berriz, argudio gisa. Ez dugu ibilbide hori zalantzan jartzen, baina uste dugu guk ere dagoeneko badugula egina bide bat, irabazia sinesgarritasun bat, eta gurekin lan egin ahal izan duen orok ondo dakiela ez genukeela horrelako pausu bat -besterik gabe- amorruz edo diru gosez emango.

**Numero batzuk**
Imajinatzekoa denez, Vaivenek publikatu duen oharraz oso bestelako bertsioa dugu guk, datu berdinak guztiz aldatzen baitira begiradaren arabera.
Vaivenek kaleratu duen komunikatuan argi eta garbi onartzen du konpainiak antzezlan honen sortze prozesua berezia izan dela, sakona, ahalegin handia eskatu duena. Hasieran baldintza ekonomiko eta ordutegiak jakinarazi (eta ez “adostu”) eta onartu genituen arren, lanean jarri eta denbora aurrera joan ahala ordutegiak betetzen ez zirela konturatu ginen. Ordutegi zehatzik gabe lanean jardun genuen konpainiarentzat disponibilitate osoz entseguek iraun zuten denboran. Egunean 6 ordu baino gehiago lan eginez, konbenioak markatzen duena gaindituz; dietarik gabe, noski, janaria etxetik eramanda; larunbata, igande, behar zena, antzezlana aurrera atera ahal izateko. Gure soldatak ordea ez ziren berrikusi ez aldatu, sartzen ari ginen ordu kopurua kontuan izanda (enpresaren hitzetan “master” bat egiten ari ginen, horrekin gure lana ordainduko balu bezala).
Beste adibide bat, hauxe da lantalde honetako kide batek irailean 24 egunez lanaldi osoan lan eginez irabazitako soldata: 754,56 euro. Beste lanbide batzuetan eskandalagarria dena onartu behar dugu aktoreok?
Zoritxarrez prekarietateren mugan dauden baldintzetan lan egitera ohituak gaude, baina kasu honetan marra gorri guztiak pasatu zirela sentitu genuen. Egindako lana eta jasotako lanaren ordainsariaren artean desoreka ikaragarria zegoela ikusirik, eta galerak orekatze aldera eta negoziaketa bat abian jartzeko asmoz, sariaren erdia eskatu genion konpainiari, gure ezinegonaren tamaina ikus zezan. Vaivenek kontu hau aipatu du bere oharrean, sekulako garrantzia emanez. 6.000 euro eskatu genituen bai, baina ez zitzaigun iruditu aktore bakoitzeko 2.000 euro eskatzea hainbesteko erokeria zenik, goiko soldataren adibidea ikusirik. Hala ere, ez genuen inola ere espero kopuru horretara iristea, baina balantzaren beste aldean zegoena hain zen eskandalagarria (urte luzez aldatu ez den konbenioak markatzen duen minimoaren mugaren mugan, beste behin ere), eta hain luzea jasotako tratu eskasaren katea, nolabaiteko enbido bat jo genuela negoziatzen hasteko.
Gure asmoa ez da inondik inora eztabaida hau luzatzea. Gu sortzaileak gara, gure indargunea ez dira numeroak eta legeak. Aski zaigu lan gatazka baten berri azaleratu izanarekin, eta zentzu horretan kultur eragileak gonbidatzen ditugu egun bizi ditugun lan baldintzen eta euskarak batzuetan jasaten duen tratamendu, gure ustez, desorekatuaz hitz egitera.
Norbaitek zalantzarik balu galdetu besterik ez du, arazorik gabe azalduko dugu zein izan den gure egoera. Prest gaude guregana jotzen dutenei datu guztiak eta gertatutakoaren inguruko azalpen guztiak emateko.
Are gehiago, proposamena luzatzen diegu bai EAB zein EHAZEri bi aldeak konbokatu eta mahai baten inguruan, beraien begiradapean, gauzak argitzeko.
Mila esker
**Iraia Elias, Xabi SanSebastian eta Miren Tirapu**

# “QUE TIEMPOS SERÁN LOS QUE VIVIMOS, QUE ES NECESARIO DEFENDER LO OBVIO” BERTOLT BRECHT

Soy Ana Pimenta, miembro de EAB hace 20 años, directora de Vaivén Producciones. Ante las difamaciones que Vaivén sufrido en prensa y redes sociales entre otros foros, por los actores de *Sherezade eta tipularenazalak*, aclaramos:

• Vaivén ha cumplido de forma absolutamente comprobable los contratos realizados entre los actores y la productora y se ha atenido al acuerdo laboral vigente entre EAB y Eskena.

• El pago de los ensayos se ha regido por dicho acuerdo (de 800 a 1.000€ brutos/mes). El director planteó los horarios y el compartir comidas y nadie expresó ningún inconveniente (Chapitô normalmente trabaja así). Vaivén se hizo cargo en bastantes ocasiones del pago de las mismas. Se puso un coche de empresa para los ensayos de los actores con su gasto correspondiente y los viajes de una de las actrices que viajaba desde otro lugar. Cuando los actores tenían bolos, sesiones de cine o cualquier otro trabajo se respetaba.

• Las jornadas de ensayo duraban una media de 4 horas y media, comida aparte.

• La cifra pactada por bolo era superior a la regulada en el acuerdo laboral, incluso en la gira concertada en el circuito vasco donde se hicieron 16 funciones. Fuera de esa gira de circuito, el acuerdo al que se llegó con los actores fue de un 44% más por bolo del mínimo que figura en el acuerdo laboral.

• Los actores fueron contratados única y exclusivamente para realizar funciones de interpretación, nunca para intervenir en la versión en euskera. No existe ningún acuerdo ni contrato que lo atestigüe.

• Con respecto al Donostia Saria, la compañía trató de reabrir el espectáculo, sin funciones desde agosto y terminada su gira, y entró en negociación con los actores. Las condiciones planteadas por los actores, una semana de ensayos, dietas y viajes de los mismos y el pago del cachet, fueron aceptados por Vaivén, pero la negociación se rompió cuando los actores plantearon el cobro innegociable de 6.000 € (mitad del premio) para hacer la función. Los argumentos para desestimar la petición fueron:

- Si un actor no está de acuerdo con los horarios debe plantearlo a la productora/director. Si las condiciones dadas en los ensayos no le parecen adecuadas es el momento de plantearlo a la productora. Y si no hay acuerdo debe buscar mecanismos como la mediación a través de EAB.
- El premio se le otorga a la compañía y para recibir el pago total del mismo debe realizar otra función en euskera en los siguientes años.
- La versión en euskera fue realizada por Ainara Ortega, que fue contratada para ello y la aportación de los actores no fue superior a la que hay en cualquier proceso de creación, es decir, pequeñas adaptaciones para hacer más cómodo el sentir del personaje. Nunca se planteó que la adaptación fuera compartida.
- Los ensayos realizados en euskera son los que se dan normalmente en las dobles versiones, de diez a quince ensayos (así suele ocurrir en las demás producciones que se hacen en el ámbito de Eskena).
- La impotencia ante la falta de más bolos tras la gira citada es de los actores y también de la compañía. Como dato anecdótico, un espectáculo con 20 funciones deja sin amortizar mínimo un 35% del coste de la producción, eso si ha tenido un 50% de subvención de Gobierno Vasco.

• Vaivén en sus 22 años ha respetado siempre las condiciones laborales pactadas con los actores, como no podía ser de otra manera, y desde el acuerdo con EAB siempre hemos trabajado conforme a lo establecido en ensayos; y en los bolos casi siempre muy por encima de los mínimos del acuerdo. Durante todos estos años las diferencias o negociaciones especiales se han resuelto en un clima de empatía mutua.

• Varios han sido los intentos de mediar con el equipo actoral para hacer el bolo del Donostia Saria y para templar la situación, pero nada de eso dio sus frutos.

• Romper las reglas que rigen las relaciones entre actores y compañías y hacerlo con acusaciones falsas, ante el jurado del Donostia Saria, el dpto. de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián y ante la opinión pública es gravísimo.

• Agradecemos el apoyo brindado por muchos actores y otros profesionales y compañeros, así como el apoyo incondicional de Eskena que no ha dudado del comportamiento laboral de Vaivén en todo este desagradable proceso. Y es ella quien a pesar de que los tiempos siguen siendo durísimos para las estructuras de las compañías ha planteado a EAB la revisión del acuerdo laboral para llegar a un futuro convenio.

¿Alguien cuantifica el daño infringido a Vaivén al verter estas acusaciones en público? ¿Puede pretenderse abrir un debate sobre la precariedad del sector (en las que todos estamos de acuerdo y de la que todos somos víctimas) a partir de crucificar a una compañía? ¿Ayudan gestos como este a facilitar todas nuestras relaciones dentro de la profesión? ¿Podía hacer otra cosa Vaivén sino defenderse? ¿Ponemos a debate todas las estructuras y procesos de producción en Euskal Herria?

Nunca hemos eludido análisis autocríticos respecto a nuestro funcionamiento. Pero estos solo pueden darse desde el respeto previo. Esta será nuestra última declaración pública. **Vaivén**

Egindako Ikastaroak



# CUANDO EL TIEMPO **NO VUELA EN VANO**

La cuesta de enero, como popularmente se conoce, no es solo económica, en ocasiones también es anímicamente baja. Sobre todo para actores y actrices, profesionales de las artes escénicas, que se han visto envueltos en proyectos de inicio de curso y acaban de cerrar un trimestre lleno de ensayos, proyectos y estrenos. "De septiembre a diciembre coge todo lo que puedas que es cuando se trabaja", me aconsejó una amiga que lleva años en este mundo. Ése fue su comentario después de que yo le dijera que andaba agobiadísima, que no me daba la vida haciendo malabares para ensayos, venta-distribución y colaboraciones varias. Y es que quizás una servidora se pudiera pensar que está en racha, y que el sector no está tan mal, que rebrota y que está empezando a estar más activo. Vaya, lo que me dió a entender es que aquello que me hacía pensar que había empezado el curso con buen pie no era más que uno de los picos productivos del ciclo anual. Lo pillé enseguida, en cuanto cayó diciembre, y es que también cayó el telón. Enero, la agenda había quedado vacia. Fue entonces cuando leí que Espe Lopez iba a impartir un curso sobre performance en la sala Baratza. Lo anunciaba como un curso para nutriar la curiosidad, la búsqueda y creación. Sí, era exactamente lo que necesitaba en ese momento. ¡Daría el nombre!

Más vacío que el que sentía en ese momento no iba a generarme un intensivo, digo yo, vaya. Siempre suma formarse y nutrirse de otros compañeras y profesores. Además, Espe Lopez, la había visto en varias ocasiones en escena. Cómo dejar pasar aquella ocasión. ¡Adelante! Durante dos fines de semana consecutivos conocimos y entendimos el proceso de artistas de la performance históricos y actuales. La persecución de Sofie Calle hasta Venecia a un hombre que apenas conocía, la exposición del cuerpo al límite y al dolor de Abranovich, el arte carnal y la cirugía de Orland, el teatro de la muerte de Tadeusz Kantor...o las cámaras ocultas de Remi Gaillard... o las grandes referencias de casa en el panorama performativo como lo son Itziar Okariz y Esther Ferrer. Todas esas figuras artísticas han estado cerca de nosotras más que nunca. Las hemos revisado, conocido y revisionado para posteriormente traerlas a lo nuestro. Y es que el curso prometía ser "eminentemente práctico". Y suscribo que lo fue. Además de documentarnos y compartir biografía y obra de aquellos referentes con el resto del grupo, cada alumno tuvimos la oportunidad de rendir homenaje a una de esas figuras de la performance. Fueron unos ejercicios realmente interesantes en los que cada una de nosotras pudimos mostrar las herramientas y teoría de lo allí aprendido a través de nuestra propia exposición escénica.

El curso de perfomace y creación de Espe López no solo cumplió, sino que, superó con mucho mis expectativas. El grupo quedó encantado. Nos llevamos a casa herramientas y volvimos a estar llenos. Como dijo un compañero y amigo con el que compartí el curso "uno sale de aquí sintiéndose un poquito más artista". Queremos una segunda parte.



**Josune Velez de Mendizabal**



# SORMENAREN PARTE IZAN
## ALA EZ IZAN

Beti, beti, beti, sormenaren parte izan. Begiak itxita naiz irekiak, dudakin edo duda gabe, bildurrak loratzen edo eta ausardiaz gozatzen, tentuz, harrotasunez, puztuta edo txikituta, negarrez edo barrez (serio akaso), baina beti parte izan. Izan ere, lankideetatik, zuzendarietatik, koordinatzaileetatik, nerabeetatik ikasteko aukera galanta eskeintzen bait du "Sormenaren parte izan" proiektuak.

Urrian, proiektu honetan parte hartzeko aukera zabaldu zuen EABk, azken urte hauetan bezala. Proiektua ezagutu nuenetik, oso ekimen polita eta interesgarria zela iruditu zitzaidan, baina aurten arte ezin izan nuen parte hartu. Ekimenaren funtsa? Ikasle nerabeen ezinegonetatik, bizipenetatik, kezketatik,... antzerki pieza labur bat sortzea.

Proiektuan parte hartzeko, izena ematen dutenen artean, zozketa egin behar izaten da, 10 bait dira proiektuan parte hartu dezaketen aktoreak. Hau da, bi talde eta 5 aktore talde bakoitzeko. Talde bakoitzak, zuzendari bana eta guzti honen ingurua koordinatzaile bat. Aurretik, 5 egun, 16 nerabe (gure kasuan Bidebieta institutoko ikasleak) euren beldur, irribar, harrotasun, zintzotasun, kezka, axolagabekeri eta bihotz irekiekin, eta seigarren egunean, 20 minutuko pieza labur baten aurkezpena.

Petsonalki, esperientzia ezin hobea izan zela esan beharra daukat. Horrelako proiektu batean murgiltzen zarenean, dudak, beldurrak haundiak dira. Zer egingo dugu? Nola? Iritsiko gara? Gustatuko zaie? Eta nahiz eta barne barnean, galdera guzti hauen erantzuna, positiboa dela dakizun, beldurrak hor dirau. Lehenengo inproa, gogorra da. Gazteen ideia pare bat landu eta gero, ikasleak, entsegu gelara datoz, eta landutakoa antzeztea tokatzen da. Ez dakizu gustatuko zaien, barrutik zeozer mugituko ote dien, edota kakara bidaliko zaituzten. Baina egunak pasatzen diren heinean, argi uzten dizute bide onean goazen edo ez. Ikusten dutena gustatzen zaienean, aspaldiko eta ez hain aspaldiko kontuak burura etortzen zaizkie. Eta ez bakarrik burura etorri, kontatzera ere animatzen dira. "Nire etxean horrela zen egunero. Orain ia ez", negarrez, neska batek kontatzen digu gela guztiaren aurrean. Momentu horretan ez dakizu ondo ari zaren edo ez. Akaso ukitu behar ez genituzkeen gaiak ukitzen gabiltza? Beraientzat terapeutikoa da? Egun horretan, neska honek besarkada batekin agurtu gintuen denok. Bai, bide honetik goaz.

Gela bakoitza mundu bat da... Eta badirudi gaiak gelaz gela, aldatzen direla. Teknologia, bulling, mugikorrak, borrokak, hitzezko biolentzia, biolentzia fisikoa, etxean, kalean, institutoan, musikan,... Gauza asko ikasi ditugu, bai. Eta ez bakarrik, tipo "txarrena", "fuerteena", "gaiztoena", *puto amo* bat dela. Ez. Bai guk eta bai eurek badakite hori ez dela horrela. Badakite puto amo hori, agian etxean duen egoerarengatik dela. Edo entrenamenduan. Edo kalean. Edo auskalo non eta zerk eramaten dion horrela izatera.

Gauza bat argi dago. Biolentzia oso presente dago euren bizitzetan. Batzuetan ardatz bat dela ematen du. Eta esaten dutenarengatik, hori horrela ez izateko ez diegu gehiegi laguntzen... Ez institutoan, ez etxean, ez kalean, ez musikan,... Beraz, egitekoa badago.

Azkenik, eskerrik asko Esther, Eneko, Naiara, Judith, Xabi, Ainhoa, Esti, Adriana, Libe, Amaia, Barbara, Maria, Edu eta Jon Ander. Eta batez ere, Bidebieta eta Lasarte institutoko ikasleei, horren ausartak izateagatik. Plazerra izan zen, bai. Baina batez ere, suerte paregabea izan zen.



**Eriz Alberdi**

Oharrak



Markos Gimeno Vesga (03/05/1974–07/12/2018)

## BANTZARI

El 7 de diciembre de 1.941 el ejército nipón atacó la base estadounidense de Pearl Harbour, en un intento de volver al esplendor perdido del Imperio, dando lugar a la entrada de EE.UU. en la Segunda Guerra Mundial.

Del mismo modo, 77 años después, en un intento de recuperar la añorada VIDA con mayúsculas, el Puto Amo de las Matemáticas, Señor del Palíndromo, Anagrama y Calambur, a sus 44 años, se embarcó en un vuelo (de dudoso éxito para cualquier persona común y corriente, pero que sólo él nos lo podría explicar) para recuperar las sensaciones vitales que tenía 22 años atrás.

**TORA!**
**ATOR!** **Banzai; NAIZ, ba!**
**OTRA!**

Zinema 7. artea dela diote. Zuk 11 arte ezberdin landu duzu (palindromogilerik onena, aktorea, zuzendaria, musikaria, idazlea, clown, dramaturgoa, graffiteroa, disenatzaile grafikoa, tatuatzailea, jolasen sortzailea... izan zara). Horregatik, hunkigarria izan zen zu Goya Sarien 33. galan ikustea.

Hemos recorrido los lugares más dispares; yo diría que... ¿55 veces?, haciendo lo que más nos divertía. Con tu manera mágica de ver las cosas: ese puntito de sal que siempre se puede añadir al mejor plato. Espero que, en tu nueva vida, tengas la cocina que te mereces. Y que la cerveza no tenga por qué ser 0,0. On egin! Your comedy widower,

**Juanma Rodríguez**

---

EAB Euskal Aktoreen Batasuna

### WEB-EKO INFORMAZIOA

Zuetako askok eguneratu gabe dauzkazue web-eko zuen datuak. Mesedez begiratu nola daukazuen eta berritu ezazue.

### INFORMACIÓN EN LA WEB

Muchos/as de vosotros/as tenéis sin actualizar los datos de la web. Por favor, consultad vuestra ficha y renovadla.

### ARGAZKIAK BERRITU

Lehenagotik iragarri dugunez, web orria berritzera goaz. Horregatik, eta nahi, eta ahal, duenak argazki txukunagoak eduki ditzan, denentzat eskuragarri eta merke izan nahi duen aukera merke bat eskeintzera gatozkizue Mikel Martinez eta Son Aoujil argazkilarien eskutik Donostian eta Bilbon, hurrenez hurren. **Eskeintza:** 5 argazki 50€. Infomazio gehiago bidaliko dizuegu.

### RENOVAR LAS FOTOS

Como venimos anunciando, vamos a renovar la página web. Por ello, para que el que quiera, y pueda, tener unas fotos en condiciones queremos haceros una oferta barata de mano del fotógrafo Mikel Martinez en Donostia y de la fotógrafo Son Aoujil en Bilbao. **Oferta:** 5 fotos 50€. Os enviaremos información más detallada.

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN ZERBITZUEN DESKONTUAK

## SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

### GIPUZKOA

| | | |
|---|---|---|
| Academia de idiomas OUI | 20% | www.academiaoui.com |
| Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta | 15% | www.mikelmartinez.net |
| Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel | 15% | ainhoexki@hotmail.com |
| Tai Chi Chuan Eskola | 15% | www.taichichuaneskola.com |
| Videos Zazpiterdi | 15% | http://zazpiterdi.com/es |
| Videos Zumeta | 15% | www.zumetavideo.com |

### BIZKAIA

| | | |
|---|---|---|
| Coach Yannick Vergara | 20% | yannickvv@hotmail.com |
| Librería de Artes Escénicas Yorick | 5-15% | www.libreriayorick.com/teatro/ |
| Maquillaje profesional Alicia Suárez | 15% | www.aliciasuarez.net |
| Peluquería Glamuforia | 15% | es-es.facebook.com/glamuforia |
| Videos Yolanda López de Heredia | 15% | yolandalzheredia@gmail.com |

### ANTZOKIKO DESKONTUAK

| | | |
|---|---|---|
| Alegria Dulantzi | 0% Precios populares | www.alegriadulantzi.com |
| Arriaga Antzokia | 25% | www.teatroarriaga.com |
| Barakaldo | 50% | www.teatrobarakaldo.com |
| Donostiako Antzokiak | 10% | www.donostiakultura.com |
| Elorrio | 50% | www.arriolaka.eus/es |
| Gasteizko Antzokiak | 20% | www.principalantzokia.org |
| Lobiano Kulturgunea (Ermua) | 25% | www.ermua.es |
| San Agustin Aretoa (Durango) | 25% | www.durango-udala.net/sanagustin |
| Oreretako Kulturgunea | 10% | www.errenteria.net |
| Zornotza Aretoa | 25% | www.zornotzaaretoa.net |
| Zumaia | 50% | www.zumaia.eus/es |




DIRUZ LAGUNDUTAKO BERRIPAPERA

KOLABORATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO